



GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO BABES-NEURRI INTEGRALEKO 1/2004 LEGE ORGANIKOAN ARAUTUTAKO GENERO INDARKERIAREN AURREAN, SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEK ETA ABOKATUEK JARRAITU BEHARREKO JARDUERA ETA KOORDINAZIO PROTOKOLOA

Abenduaren 28ko 1/2004 Genero Indarkeriaren kontrako Babes-Neurri Integraleko Lege Organikoaren 20. artikulua araberan, genero indarkeriaren –aipatutako legeak arautzen duen esparruan– biktima diren eta auzitan jarduteko baliabide falta frogatzen duten emakumeek eskubidea dute doako defentsarako. Abokatu bidezko doako defentsa hau izateko eskubidea dute jasandako genero indarkeriarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten epaiketa eta prozedura administratibo guztietan; horretarako, zuzendaritza-abokatu berberak hartu beharko du bere gain biktima bakoitzaren defentsa. Halaber, Lege Organikoak pauso bat gehiago ematen du berehalako defentsa juridikoa eta espezializatua eskainiz genero indarkeriaren biktima diren eskatzaile guztiei; dena dela, gerora ez bazaie onartzen laguntza juridikoaren doakotasuna, biktimek ordaindu egin beharko diote abokatuari hark eskainitako zerbitzua.

Hortaz, 1/2004 Lege Organikoak genero indarkeriaren biktimentzako ezaugarri berezidun laguntza juridikoa ezartzen du. Orientabide Juridikoen Zerbitzurako eta laguntza juridikoaren zerbitzurako berezitasunak finkatzen ditu bikotekide edo bikotekide ohien eskutik tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen defentsarako eskubide eraginkorra bermatzeko.

Bi dira, beraz, genero indarkeriaren biktima den emakumeari eman behar zaion laguntza juridikoaren ezaugarriak: berehalakotasuna eta espezializazioa.



Aipatutako Lege Organikoak ezartzen duen berehalako laguntza juridikoa gauzatzeko eta abokatuak biktima jakinari lehenbailehen laguntza emateko, Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzen eta Abokatuaren Elkargoen artean koordinazioa egon behar da – Polizia Gorputz Nazionalako Dependentsien eta Guardia Zibilaren bitartez–.

Halaber, 1/2004 Lege Organikoaren filosofia, besteak beste, beronek arautzen duen esparruan genero indarkeriako biktimak lagundu eta babestea bada, zentzuzko dirudi emakumeek genero indarkeriarekin lotura duten jardura judizial guztietan abokatuaren laguntza izan dezatela eskatzea. Izan ere, helburu horixe du Babes Agindurako eskaera-orri honek: bestelako informazio garrantzitsuez gain, indarkeria mota honen biktima guztiek laguntza judizialerako eskubidea dutela jakinaraztea.

Polizia Judizialaren Koordinaziorako Batzorde Nazionalako Batzorde Teknikoak (2007ko uztailaren 3ko batzarrean) onartutako Protokolo honen asmoa ondoko beste protokoloan jasotakoak –Estatuko Segurtasun Indar eta Gorputzen esparruan– ezartzea da: “Etxeko eta genero indarkeriaren biktimen babeserako Segurtasun Indar eta Gorputzek erakunde judizialekin jarraitu beharreko Jardura eta Koordinazio Protokoloa”. Bere helburua laguntza judizialerako zerbitzua bermatzea eta homogeneizatzea da salaketarako eta babes agindurako eskaera-orria betetzerakoan zein aurkezterakoan; biktimarentzako zerbitzu poliziala eta atestatuaren adierazpen poliziala hobetzea, eta baita ere, biktimarentzako informazio eta laguntzarako jarraibide orokorrak ezartzea, bai alderdi judizialerako eta bai balizko gizarte-prestazio eta gizarte-neurrietarako, beti ere 2007ko ekainaren 22ko Ministro Kontseiluaren Akordioa betez.



I. ABOKATU ELKARGOEK ESKAINITAKO BEREHALAKO ETA ESPEZIALIZATUTAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

Arestian aipatu bezala, 1/2004 Lege Organikoaren 20. artikulua genero indarkeriaren biktima guztiei bermatzen die berehalako eta espezializatutako laguntza juridikoa, auzitan jarduteko baliabide falta frogatzen duten emakumeentzat doako izango dena; era berean, Abokatuen Elkargoen genero indarkeriarekin lotutako prozedura juridiko guztietarako ofiziozko abokatu bat izendatzeko beharrezko dituzten neurriak hartu beharko dituzte.

Ondorioz, genero indarkeriaren biktimarentzako arestiko arauetan ezarri den berehalako laguntza juridikoa Abokatuen Elkargoen baitan antolakuntza eskatzen du. Konplexua da, barruti judizialean eskaini daitezkeen laguntza kopuruen aurreikuspenak egitea beharrezkoa baita, Justizia Ministerioari berehalako laguntzarako beharrezko guardia-abokatu kopurua proposatzeko; kontuan izan beharra dago une oro erabilgarri izan behar den guardia-abokatuaren kostu ekonomikoa Justizia Ministerioaren aurrekontu arruntetik ordainduko dela Justizia Administrazioaren esparruan oraindik eskumenik ez duten zortzi komunitate autonomoetan (Gaztela eta Leon, Gaztela Mantxa, Murtzia, Aragoi, Extremadura, Balear Uharteak, Kantabria, Errioxa, Ceuta eta Melilla); gainontzeko bederatzi komunitate autonomoek (Euskal Autonomia Erkidegoa, Katalunia, Valentzia, Galizia, Andaluzia, Kanariar Uharte, Nafarroa, Madril eta Asturias) euren aurrekontuetatik ordainduko dituzte arestian aipatutako kostuak.

Espainiako Abokatuen Kontseilu Orokorraren proposamenari jarraituz eta aurrekontuen erabilgarritasuna kontuan izanik, Justizia Ministerioak 24 ordutarako guardia-abokatu kopuru zehatz bat baimentzen du genero indarkeriaren alorrean ofiziozko txandak egiteko Espainiako Abokatu Elkargoetako lurralde kudeaketarako Saitetan.



1/2004 Lege Organikoak eta 1/1996 Legeak Abokatuen Elkargoei ematen die beharrezko neurriak hartzeko eskumena genero indarkeriagatik zabaltzen diren prozeduretan berehalakotasunez ofiziozko abokatuak izendatzeko. Abokatuen Elkargoak dira, Espainiako Abokatuen Kontseilu Orokorrekin batera, doako laguntza judiziala arautu eta antolatzen dutenak, zerbitzu hau une oro bermatuz, eta euren eskura jarritako diru publikoaren erabilera funtzionala eta eraginkorra eginez. Horretarako, elkargo profesionalek txanda eta baliabideen banaketa sistema objektibo eta bidezkoak ezartzen dituzte ofiziozko profesionalen hautaketarako. Banaketa sistema hauek publikoak dira eta doako laguntza juridikoa eskatzen duen edozeinek kontsulta ditzake.

Alor honetan, genero indarkeriaren biktimaren ofiziozko abokatuak ondoko parametroetan jokatu behar du:

1. Guardia-abokatuak aurkitzeko moduan egon behar da momentu oro, abokatu elkargo bakoitzak hitzartutako baldintzetan, biktimaren berehalako laguntza judiziala bermatuz.

Horretarako, komeni da kontuan izatea genero indarkeriaren biktimek berehalako laguntza juridikorako eskubidea dutela 24 orduz, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera; eta hortaz, abokatuak lehenbailehen lagundu behar dio genero indarkeriaren biktima den emakumeari, luzamendu edo atzerapen barik, biktimentzako laguntza judizialaren kalitatean ez eze, eginbide polizial eta judizialen bideratzean ere eragiten baitu honek. Hortaz, Abokatuen Elkargoek genero indarkeriaren biktimei eskaintzen dien laguntza juridikorako guardia-abokatu kopurua igotzen saiatu beharra dago, berezitasun geografikoengatik zein barruti judizialen arteko distantziagatik probintzia batzuetan gerta daitezkeen zailtasunak gainditzeko mekanismo egokienak ezarriz.



2. Ondorioz, genero indarkeriarako zaintza txandetan, guardia-abokatua ezin da inoiz aldendu genero indarkeriaren biktimari laguntza juridikoa eman behar dion lurralde-esparrutik. Gainera, guardia-abokatua ezingo da beste epaiketa edota eginbideetara joan bere berehalakotasuna oztopatzen badio. Bere parte-hartzea eskatzen duten ekitaldietara ere ezingo da joan, baldin eta ez badu aurretiaz Elkargoan abisua ematen bere ordezkari guardia-abokatu bat jartzeko.
3. Zaintza hasi aurretik, abokatuak beharrezko arautegiaz jabetu beharra du biktima egoki aholkatu eta laguntzeko; genero indarkeriaren biktimaren defentsarako eta abokatuak ordezkaria izateko doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidearen eskaera-orria eskura izan behar du (Doako Laguntza Juridikoaren Araudia, uztailaren 25ean onartu zuen 996/2003 D.E.aren I.IV Eranskina, gerora otsailaren 2an 1455/2005 E.D.an aldatu zena); halaber, etxeko indarkeriaren biktimentzako Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordeak onartutako Babes Agindurako Eskaera-eredua eskura izan behar du (Abokatuen Elkargoan aurki daitezke eskaera-ereduok).
4. Polizia egoitzatik, Guardia-Epaitegitik edo Emakumearen kontrako Indarkeriaren Epaitegitik genero indarkeriaren biktima den emakume bati laguntza juridikoa emateko deitu bezain laster, guardia-abokatuak ondokoa egin beharko du:
 - a) Bere laguntza eskatu duen biktima dagoen lekura agertu beharko da lehenbailehen, eta bere datu pertsonalak idatziz eman biktimari etorkizunean bere beharra duenerako abokatua aurkitzeko modu errazena ere eskainiz.
 - b) Bere defendatua egoki informatu beharko du, doako justiziarako duen eskubidea eska dezan eta eskubide hori lortzeko bete beharreko baldintzak



ezagutu ditzan; behar izanez gero, eskaera-orriak betetzerakoan ere lagundu egin beharko dio. Halaber, ohartarazi egin beharko du, gerora ez badiote onartzen laguntza juridikoaren doakotasuna, ordaindu egin beharko diola abokatuari hark eskainitako zerbitzua. Ohartarazpen hau idatziz jaso beharko da.

Ondorioz, doako justiziarako eskubide-eskaera –I.IV Eranskina– behar bezala beteta egon behar da biktimak emandako datuekin eta sinadurarekin, Doako Laguntza Juridikoen Probintzia Batzordeek eskubidea, eta bere diru-laguntza, atzera bota ez dezaten sinadura faltagatik. Eskaera-orria Abokatuen Elkargoan aurkeztu behar da lehenengo laguntza judiziala jaso osteko 48 orduen barruan; bestela, bizilekuari dagokion Epaitegian ere aurkeztu daiteke, derrigorrezkoa izan gabe bere baliabide ekonomikoen berri ematen duen egiaztagiririk aurkeztea. Baliabide ekonomikoen berri ematen duten egiaztagiriak geroago aurkeztu beharko dira Abokatuen Elkargoan. Halaber, abokatuak biktima informatu beharra du esanez, berak baimena emanaz gero, Abokatuen Elkargoak informazio fiskala eta katastrala eskura dezakeela eta baimena eman nahi baldin badu, dagokion inprimakia eman behar zaio biktimari.

5. Salaketa edo babes aginduaren eskaera egin aurretik, abokatuak elkarrizketa pribatua izan beharra du biktimarekin gertaera ondo ezagutu eta aholkatze juridiko egokiena eskaintzeko. Hortaz, aipatu elkarrizketarako aukera eta baldintzak eskaini beharko dira polizia egoitzetan eta biktima bertaratu aurretik izan diren jardueren eta atestatuaren edukiaren (egina balego) berri ere eman behar zaio biktimari.

Edonola ere, alde zurreko aholkatze judizialean ondoko informazioa eskaini beharra izango zaio biktimari: babeserako aukera ezberdinen berri ematea,



guzti horrek dakartzan bertaratze eta ondorioak azaltzea, eta babes agindurako eskaera-orriaren bidez (edota egungo zein etorkizuneko titulu baliokide baten bidez) erabil ditzakeen eskubideen berri ematea (informazio eskubidea, gizarte-laguntza osorako eskubidea, doako laguntza juridikorako eskubidea, lan eskubidea, funtzionario publikoen eskubideak eta eskubide ekonomikoak).

6. Aholkatze juridikoa jaso ostean, biktimak salaketa jartzea edo babes agindu eskatzea erabakitzen badu, izendatutako abokatuak lagundu egin beharko dio eskaera-orriak betetzerakoan, eta beharrezkoa den kasuetan, babes penal eta zibilerako neurri zehatzetarako eskaera-orriak betetzerakoan ere lagundu egin beharko dio, ondorengo informazioa modu egokian jasotzen dela ziurtatuz: jazo beri den gertaeren kontaketa zehatz-mehatza eta lehenago biktimak edota bere seme-alabek (seme-alabarik baldin badu) jasan izan dituzten indarkeria egoeren kontaketa.

Era berean, abokatuak bertan egon beharra du biktimak deklarazioa egiten duenean nahiz bere presentzia edo parte-hartzea eskatzen duen beste edozein eginbidetan.

Hori dela eta, kontuan izan beharra dago biktimak emandako informazioa ezinbestekoa dela bai poliziak eta bai aginte judizialak zein Ministerio Fiskalak baloratzeko eraso berriak izateko kasu bakoitzean dagoen arriskua, eta emakumearentzat zein bere seme-alabentzat dagozkien babes-neurriak hartzeko.

Guzti horregatik, abokatuak berebiziko arreta jarri behar du ondoko puntuan: deklarazioa baieztatu dezaketean frogatu guztiak (begizko ikuskapena, ahaideen zein auzokoen lekukotzak, aurretiaz jazoetako laguntza medikuak, bestelako



agiriak, eta abar) “Etxeko eta genero indarkeriaren biktimen babeserako Segurtasun Indar eta Gorputzek erakunde judizialekin jarraitu beharreko Jarduera eta Koordinazio Protokoloa”-ren baitan dagoen “Atestatuaren gutxiengo edukiak” Eranskinean jasotzea.

7. Bere babesari dagokionean, biktimak hasiera-hasieratik jaso behar du ondoko informazioa:

a) Izaera penal zein zibileko kautela-neurriak dituen Babes Agindua eskatzeko aukera duela jakin behar du. Modu ulergarrian azalduz, aipatu kautela-neurriez gain, ordenamendu juridikoan ezarritako laguntza eta babes-sozialerako aukera ematen dion babes osorako estatutua ematen diola biktimari.

Neurri zibilei dagokienean, indarrean iraungo duten denbora-tartea 30 egunekoa izango dela azaldu behar zaio biktimari, baldin eta epe horretan ez bada familia-prozedurarik aurkezten jurisdikzio zibilean.

Babes agindurako eskaera-orria biktimak berak bete behar du, abokatuak eskainitako informazio eta laguntzarekin.

b) Eska ditzakeen kautela-neurri zibil eta penalak azaldu behar dizkio (bereziki, abenduaren 28an onartutako 1/2004 Lege Organikoaren 64, 65, 66 eta 67 artikuluetan Genero Indarkeriaren kontrako Babes-Neurrietarako ezarritakoak), eta kautela-neurri zibilak nahi izanez gero interesdunak espresuki eskatu behar dituela (adingabekoen kasuan salbu) jakinarazi. Horrela bada, ebazpenerako garrantzizkoak izan daitezkeen datu edo epaiketa-elementu guztiak sartu beharko ditu.



Arestian aipatutako dela eta, izaera penaleko kautela-neurriak hartzea komenigarria balitz, gomendagarria da kautela-neurriok bere baitan hartzen dituen Babes Agindua eskatzea (nahiz eta izaera zibileko neurririk ez eskatu). Izan ere, babes osorako estatutuak hainbat eskubide (euron onarpenerako genero indarkeria egoera egiaztatzen duen Babes Agindua eskatzen da espresuki) izateko aukera emango dio.

- c) Genero Indarkeriaren Biktimentzako Telelaguntza Mugikorreko zerbitzu publikoa jasotzeko aukera duela jakinarazi (informaziorako telefonoak: 900.22.22.92 eta 96.369.50.37)

- 8. Prozedura Kriminaleko Legearen 416. artikularen edukiaren berri eman beharko zaio biktimari.
- 9. Biktima edo bere ahaideen bizia eta segurtasuna bermatzea beharrezkoa denean, euren bizilekuari edo kokalekuari buruzko informazioa isilpean gorde ahal izango da. Beraz, komenigarria da gogoan izatea kausa kriminaletarako Peritu eta Lekukoen Babeserako abenduaren 23an onartutako 19/1994 Lege Organikoa indarrean dela familia-indarkeriaren biktima mehatxupean denean eta harrera-etxe batean bizi denean.

Xede berari jarraiki, biktimari jakinarazi behar zaio ondokoa eska diezaiokeela, salbuespen gisa, erakunde jurisdikzionalari: babespean dagoen pertsonari baimena ematea lekuan lekuko agentzia edo elkarte publikoarekin bere bizilekuko arrentamendu-jardueren baitan aldaketa bat egin ahal izateko. Alegia, jabekide den familiako bizilekuarekiko dagokion erabilpena beste etxebizitza batera aldatzea, zehazten diren denbora-tarte eta baldintzetan. Kasu honetan, genero indarkeriaren egile izatea leporatzen zaion pertsonak derrigorrez utzi beharko luke bizilekua, eta epaileak ondokoa baimendu



beharko luke: biktimak edota haren familiak beldurreratik bizi nahi ez duten etxea dagokien erakundeek kudeatu dezatela alokatua edota trukatua izan dadin erakunde jurisdikzionalak babes agindu horretarako ebazten duen denbora-tartean.

10. Salaketa jartze duen emakumeak tratu txar fisikoak jasan baditu funtsezkoa da mediku-txostenik badagoen ziurtatzea, eta egonez gero, salaketari eranstea. Txostenik ez badu, adierazi egin beharko da zein osasun zentrotara eta zein datatan joan den.
11. Biktima egoera irregularrean dagoen emakume atzerritarra denean, bereziki kontuan hartzekoa da jakinarazi behar zaiola bere egoera administratiboak ez duela eragiten, inola ere, legeak eskaintzen dion laguntza osorako eskubidean eta bere egoera erregularizatzeko eskubidea duela arrazoi humanitarioengatik, Espainian dauden atzerritarren eskubide, askatasun eta gizarte-integrazioari buruz urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Araudiaren 45.4.a) eta 46.3 artikuluetan zehazten den baldintzetan. Kasu hauetan, edozein arrazoiengatik –adibidez, salatua epaiketara agertzeagatik– ez bazaio babes agindurik ematen, abokatuak eskatu egin beharko du, dagozkion xedeetarako, Ministerio Fiskalaren txostenean jasota geratzea eskatzailea genero indarkeriaren biktima denaren zantzuak daudela.
12. Biktima adingabekoa denean bere deklarazioa, egitekotan, Ministerio Fiskalaren aurrean egingo da, LECRIMeko 433. artikuluan arautzen den moduan (Adingabekoen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 L.O.a aldatu zuen abenduaren 4ko 8/2006ko L.O.ak aldatua).



Dena dela, eta laguntza juridikoa aipatu bezala eskaini ahal izateko, eta Abokatuen Elkargoek zerbitzu eraginkorra eskaintzeko duten antolaketan ahalik eta zailtasun gutxien eragiteko, beharrezkoa da partaide diren Administrazio eta Erakundeen arteko elkarlana, abokatuari bere betebeharra gauzatzen laguntzeko eta abokatuak bere zerbitzua atzerapen barik eta lehenbailehen eskaini ahal izateko.

II. ESTATUKO SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN ETA ABOKATUEN ELKARGOEN ARTEKO KOORDINAZIOA

“Ikerketa poliziaren faseko jarduera”-ren I.A Atalean jasotzen denaren arabera eta “Etxeko eta genero indarkeriaren biktimen babeserako Segurtasun Indar eta Gorputzek erakunde judizialekin jarraitu beharreko Jarduera eta Koordinazio Protokoloa”-ren baitan dagoen “Atestatuaren gutxiengo edukiak” Eranskinean jasotzen denaren arabera, genero indarkeriaren biktima den emakumearen kargu dagoen funtzionario polizialak beharrezkoak diren jarduerak burutu beharko ditu biktimak laguntza judizialerako duen eskubidea bermatzeko, beti ere, ondorengo argibideak jarraituz:

1. Biktimari jakinaraztea, lehenengo larrialdi-neurriak hartu ostean eta berak ulertzeko hizkera eta modu egokienean, laguntza osoaren parte bezala abokatu espezializatu bat izateko eskubide legala duela, une horretatik aurrera aholkatze-juridikoa eskain diezaion salaketa aurkeztu aurretik eta babes agindua eskatu aurretik. Aurretiaz jakinarazi beharko zaio, beraz, aipatutako babes agindu hori eskatzeko aukera duela.
2. Biktimari argi azaldu behar zaio hiru bide dituela dagokion laguntza juridikorako eskubidea erabiltzeko: lehenengoa, bere aukerako abokatu izendatuz;



bigarrena, jada lagundu dion abokatuak aukeratuz; eta hirugarrena, funtzionario polizialaren galderei baiezkoa erantzunez. Azken honek, beharrezkoak diren gestioak egin beharko ditu laguntza juridikoa eskaintzeko, Abokatuen Elkargoko txanda espezializatuko guardia-abokatu bat eskainiz salaketa aurkeztu aurretik eta babes agindua eskatu aurretik.

3. Biktimari jakinarazi behar zaio, guardia-abokatu espezializatuaren laguntza izatea aukeratzen badu, doako laguntza juridikoa izateko eskubidea izango duela baldin eta auzitan jarduteko baliabide falta frogatzen badu; eta une horretan baliabide falta frogatu beharrik ez badu ere, gerora ez bazaio onartzen laguntza juridikoaren doakotasuna, biktimak ordaindu egin beharko dio abokatuari hark eskainitako zerbitzua. Biktimari azaldu behar zaio, genero indarkeriarekin lotura duten epaiketa eta prozedura guztietan izan ahalgo duela abokatu horren laguntza.
4. Biktimak bere laguntza judizialaren eskubideari uko egiten badio, atestatuan jaso beharko da berariazko eginbide bidez eta gainontzeko jarduerekin jarraitu beharko da, protokolo bidez aurreikusitako aholkatze-poliziala barne.
5. Biktimak bere laguntza judizialaren eskubidea erabiltzen badu, izendatutako abokatuari abisua emateko beharrezkoak diren bitartekoak eman beharko dira, edota bestela, funtzionario polizialak laguntza judizialaren beharra komunikatu beharko dio dagokion Abokatuen Elkargori, argi adieraziz genero indarkeriarako eskaera dela (Ofizio Espezializatuko Txanda). Abokatuen Elkargoak guardia-abokatuen eta euren harremanetarako telefonoen zerrenda emango balu, zuzenean zerrendan dagokion txanda espezializatuko guardia-abokatuari deituko dio. Dena dela, funtzionario polizialak beharrezko kidetzedatuak eta harremanetarako datuak eman beharko dizkio bai biktimari zein poliziaren egoitza, Guardia-Epaitegi edo dagokion Indarkeria-Epaitegiari.



6. Izendatutako abokatuaren komunikazio faltagatik biktimak berehalako laguntza judiziala jasotzen ez badu, berriz ere Abokatuen Elkargolari eskatuko zaio biktimarentzako laguntza eskaintzea.

7. Poliziaren Egoitzako Erregistro-Liburuan jasoko dira beti Abokatuen Elkargora eginiko deiak eta suertatzen diren arazoak (Abokatuen Elkargorekin harremanetan jartzeko arazoak, laguntza juridikoa eskaini behar duen abokatua falta izatea, eta abar).

8. Ezingo da deklaraziorik hartu, salaketaren eskaera formalik egin, edota biktimaren sinadura, presentzia edo onarpena eskatzen duen inolako eginbiderik gauzatu (Babes Aginduaren eskaera, esaterako), abokatua poliziaren egoitzara heldu arte, baldin eta emakumeak laguntza judiziala onartu badu.
Aurreko puntuan aipaturikoa errespetatuz, prebentziozko eta gaizkilea ziurtatzeko lehenengo eginbideak martxan jarriko dira, eta beharrezkoak diren neurriak hartuko dira biktimaren osotasun fisikoa babestu eta delitua froga dezaketen aztarnak gordetzeko: delituaren objektu, instrumentu edota frogak bilduz, gero epaitegien eskura jartzeko. Gauzaturiko eginbide eta jarduera polizial guztiak atestatu polizialean jasota geratu beharko dira biktimaren kontaketa jaso aurretiko eginbide bezala.

Behin abokatua poliziaren egoitzara bertaratzen denean, babes agindurako eskaera egin aurretik eta salaketa egin aurretik eskura jarri beharko zaizkio abokatuari biktimarekin pribatuan elkarrizketa izateko aukera eta baldintzak, jakinaraziz, batia ere, zein den atestatuaren edukia eta momentu horretara arte buruturiko jarduerena.



9. Biktima jada abokatu batek lagunduta joaten bada poliziaren egoitzara, egoera hori berariazko eginbide batean jaso behar izango da, eta Abokatuen Elkargoari ere berri eman beharko zaio, Erregistro-Liburuan ohar hori jasotzearekin batera. Ondoren, salaketaren bilketa osoa egin behar izango da eta "Etxeko eta genero indarkeriaren biktimen babeserako Segurtasun Indar eta Gorputzek erakunde judizialekin jarraitu beharreko Jarduera eta Koordinazio Protokoloa"-ren araberrako jarduerak martxan jarri beharko dira, protokolo honetan bertan agertzen diren aurreikuspen gehigarriekin batera.

III. ESTATUKO SEGURTAUN INDAR ETA GORPUTZEK GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

Biktimek informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatze aldera, bai alderdi judizialei zein prozedurazkoei dagokienean, bai gizarte-prestazioei dagokienean, "Etxeko eta genero indarkeriaren biktimen babeserako Segurtasun Indar eta Gorputzek erakunde judizialekin jarraitu beharreko Jarduera eta Koordinazio Protokoloa"-n eta Protokolo honexetan bertan ezarritako ereduak jarraitu beharko dira.

Gainera, behin eginbideak amaitu ostean, funtzionario polizialak biktimaren eta guardiako zerbitzu sozialaren arteko harremana erraztu beharko du edo, bestela, – guardiako zerbitzu sozialik ez balego– biktima eta eskumena duen zerbitzu sozialaren artekoa (udalerrietako, probintzietako eta autonomia erkidegoetako zerbitzu, erakunde eta bulegoak). Horretarako, agenteak aipatutako zerbitzu sozial horiek eskainiko dizkioten erakundeen kokalekua, telefono zenbakia eta gaiaz arduratzen den sailaren berri eman beharko dio biktimari, erakunde hauek zehaztasun guztiekin aholka dezaten eta azal diezaioten legeak bera babesteko eskaintzen dituen mekanismo guztiak: informazioa jasotzeko eskubidea, gizarte-laguntza osoa jasotzeko eskubidea, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea,



lan eskubideak, funtzionario publikoen eskubideak eta eskubide ekonomikoak zein aurreikusitako modu guztietako diru-laguntza eskubideak; eta arreta-zerbitzua, larrialdietarako zerbitzua, laguntzarako zerbitzua eta berreskurapen osorako zerbitzua eskaintzen duten lekuei buruzko informazioa ere eskaini beharko dio agenteak biktimari. Ematen dion informazio guztia idatziz jasota geratu beharko da eginbide batean (eredu-orria protokolo honi erantsita aurki daiteke), eta behin biktimak sinatu ostean, atestatuari erantsi beharko zaio eginbidea; salatzaileari aipatutako eginbidearen fotokopia bat eman beharko zaio beti.